Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba

Gasteiz, Araba (1950)



Aurkibidea

Biografia



Gasteizen jaioa. 16 urterekin erabaki zuen euskara ikastea. 18rekin Lazkaora joan zen, lanera eta euskara ikastera. Soziologian Doktorea (Deustuko Unibertsitatean). Hizkuntzaren Soziologian aditua, bereziki hizkuntza gutxituen inguruan. Soziolinguistika Klusterraren lehendakari ohia. HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko eta LINGUANET ikastaroaren zuzendari. Eusko Ikaskuntzako kidea. Euskal Herriko Unibertsitatean soziologia irakasle da gaur egun.

Zintak

GAS-005

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-15
- **Iraupena**: 93 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. Familiak euskararekin zeukan harremana

- **Erref**: GAS-005/002
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:01:32. **Bukatu**: 00:04:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gurasoek ez zekiten euskaraz. Amaren herrian hitz solte batzuk erabiltzen ziren baina inork ez zituen lotzen euskararekin. Familian ez zegoen bereziki euskararen aldeko jarrerarik. Txikia zela gertatutako anekdota. Gerra garaiak pisu handia izan zuen.

2. Euskarara nola hurbildu zen

- **Erref**: GAS-005/004
- **Iraupena**: 0:04:34. **Hasi**: 00:05:56. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Euskararekin lehen kontaktua. Kataluniako udalekuko anekdota. Euskara ikasteko interesa piztu zitzaion. Bizkaia eta Gipuzkoatik lanera etorritako jendearekin harremana. 18 urterekin erabaki zuen euskara ikastera Gipuzkoara joatea. Egunez lan egiten zuen eta gauez euskarazko klaseak jasotzen zituen.

3. Euskararen heldulekuak Bilbon

- **Erref**: GAS-005/006
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:11:17. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Bilbora joan zen Soziologia ikastera. Herri Irratiko euskarazko saioak jarraitzen zituen. Mintzalagunaren antzeko programa bat ere bazen. Udako Euskal Unibertsitatea ere sortua zen ordurako. Giro horri esker heldu ahal izan zion euskarari.

4. Euskal Kulturaren bilakaera Gasteizen

- **Erref**: GAS-005/007
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:16:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Umetan ezagututako giro erdaldun hori pixkanaka aldatzen hasi zen. Ekimen kulturalak martxan jartzen hasi ziren: liburu eta disko azoka, dantza taldeak... Halakoetan hasi zen garatzen euskal kultura eta euskararen aldeko mugimendua. Txirinbil dantza taldean ibili zen Iñaki. Francoren ministro baten aurrean dantzatu nahi izan ez zutelako taldea utzi behar izan zuten eta beste bat sortu zuten: Lantzale.

5. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak

- **Erref**: GAS-005/008
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:16:09. **Bukatu**: 00:18:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura

Laburpena:
Diktaduraren azken urteetan erreferente garrantzitsuak izan ziren 'Presa' (Felix Lopez Presa) eta haren euskarazko eskolak. Fraide agustindarrek eta haien inguruan bildutako gazte taldeek ere mugarri bat ezarri zuten euskal kulturaren aldeko mugimenduan.

6. Gasteizko euskararen garapena

- **Erref**: GAS-005/010
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:24:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Gasteizko euskarari dagokionez, irakurketa baikorra egiten du. Umea zenean euskara "ez zen existitzen". Gaur egun berriz, nahiz eta hizkuntza guztiz normalizatua ez izan, badu aitortza bat eta batez ere gazteen artean badu oinarri sendo bat. Ezin dira ahaztu erdaldunak izanik euskararen alde lan egin duten pertsonak. Arabako Foru Aldundiak ere ikastola batzuk sortu zituen.

7. Euskarari bultzada hezkuntzari esker

- **Erref**: GAS-005/011
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:24:19. **Bukatu**: 00:26:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:
50. eta 60. hamarkadetan Gipuzkoa eta Bizkaitik langile asko etorri ziren. Nahiz eta sentimendu eta gaitasun aldetik euskaltzaleak izan, erabileraren aldetik ez zen dinamika oso euskaltzalea bultzatu. Hezkuntzaren bidez aldaketa handia etorri zen gero.

8. AEK eta euskarazko meza

- **Erref**: GAS-005/013
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:27:32. **Bukatu**: 00:29:13

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Karrera amaitu ondoren AEK-ko irakasle izan zen. AEK-k ere asko lagundu zuen euskal giroa bultzatzen eta jendea biltzen. Euskararentzat beste bilgune garrantzitsu bat euskarazko meza izan zen.

9. Euskararen erabilera bermatzen zuten lekuak ugaritzen

- **Erref**: GAS-005/014
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:29:13. **Bukatu**: 00:32:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
80. hamarkadan, euskararen erabilera bermatzen zuten lekuak ugaritzen hasi ziren: administrazio publikoan, hezkuntzan...

10. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

- **Erref**: GAS-005/016
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:34:13. **Bukatu**: 00:37:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Gizarteak ez gaitu erabat baldintzatzen, norberak aukeratu dezake zein girotan mugitzen den. Lan munduan agian hizkuntza ez da lehentasuna izango, baina beste arlo batzuetan badaude aukerak. Unibertsitatean euskarak izan duen bilakaera.

11. Euskararen prestigioa

- **Erref**: GAS-005/017
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:37:47. **Bukatu**: 00:41:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskara garai batean bigarren mailako hizkuntzatzat hartzen zen. Industrializazio garaian, adibidez, nabarmena izan zen: modernitatearekin lotzen zen hizkuntza gaztelera zen. Batez ere abertzaletasunetik bultzatu zen euskara eta bere prestigioa. Hala ere, gaur egun oraindik badaude nahiz eta euskaltzale izan, euskara bigarren mailako hizkuntza bezala ikusten duen jendearen adibideak.

12. Euskararen kontrako jarrerak

- **Erref**: GAS-005/020
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:45:50. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskararen kontrako jarrerak kalean. Abertzaletasuna eta euskara lotzearen aurreiritziak. Hizkuntza gutxituen eta aniztasunaren aldeko mugimenduak garatzen ari dira mundu mailan. Jendearen pentsamoldea aldatzen doa.

13. Euskalkiaren "inbidiaz"

- **Erref**: GAS-005/021
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:50:40. **Bukatu**: 00:54:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Batzuetan sentitu izan du euskalkiaren falta. Hitanoarena ere bai. Gasteizen euskalki desberdin asko entzun daitezke. Azken urteetan badirudi euskalkien indartze bat egon dela eta hori polita eta aberasgarria da.

14. Gasteiztarra eta euskalduna

- **Erref**: GAS-005/023
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:56:21. **Bukatu**: 00:57:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Askotan gertatu zaio jendea harritzea gasteiztarra eta euskalduna dela jakitean. Arabarrei buruzko burlak.

15. Soziolinguistika Klusterraren sorrera

- **Erref**: GAS-005/024
- **Iraupena**: 0:04:31. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 01:02:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Soziolinguistika Klusterraren sortzaileetako bat izan zen. Sorrerara iritsi arteko ibilbidea. Lehen lehendakaria izan zen Iñaki.

16. Soziolinguistika Klusterraren helburuak

- **Erref**: GAS-005/025
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 01:02:01. **Bukatu**: 01:04:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Soziolinguistika Klusterraren eginkizun eta helburuei buruz dihardu Iñakik.

17. Gauza asko eman dizkio euskarak

- **Erref**: GAS-005/027
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:07:01. **Bukatu**: 01:08:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Gauza asko eman dizkio euskarak, pertsona bezala, komunitate bateko kide bezala... Deigarria egin izan zaio beti euskaraz ikasten duten gaztetxoek, nahiz eta beraien artean gazteleraz egin, Euskal Herritik ateratzen direnean euskaraz egitea, besteengandik desberdintzeko modu bezala.

18. Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko, estatusaren egoera aldatu behar

- **Erref**: GAS-005/028
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:08:44. **Bukatu**: 01:11:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Hizkuntza bat erabat normalizatua denean, jendeari ez dio haren kalitateak asko kezkatzen. Hizkuntza gutxituen kasuan, aldiz, bai. Cuscon (Peru) astebeteko egonaldian ketxua hiztunekin bizitakoa. Hizkuntzaren kalitateak estatusarekin zerikusi zuzena dauka.

19. Euskararekiko konplexuak

- **Erref**: GAS-005/029
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 01:11:38. **Bukatu**: 01:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Edozein hizkuntzan berria denarentzat ahalegin berezi bat eskatzen du hizkuntza horretan aritzeak. Oraindik badugu euskara bigarren mailako hizkuntza izatearen ezkutuko sentimendua.

20. Hizkuntzarekin sortzen diren egoerak

- **Erref**: GAS-005/030
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 01:15:48. **Bukatu**: 01:19:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Donostiako taberna bateko anekdota, hizkuntzarekiko aurreiritziei buruz. Harreman ezberdinetan hizkuntzarekin sortzen diren egoerak. Argian publikatutako istorio bat.

21. Euskararen egoera, etorkizunera begira

- **Erref**: GAS-005/032
- **Iraupena**: 0:06:22. **Hasi**: 01:20:00. **Bukatu**: 01:26:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Euskararen egoerari buruzko hausnarketa pertsonala. Hizkuntza aniztasunari buruzko gogoetak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com